



ARTXIBOEN ERAKUSKETA BIRTUALA

OINARRIAK

Gaia

Artxiboak: eraikinak, agiriak, historia eta memoria.

Helburua

Profesionalek, erabiltzaileek, bisitariek eta, orokorrean, herritarrek daukien ikuspuntutik, artxiboak, euren edukina eta egitekoa –eraikinak, inguru publikoak, instalazioak, edukina, presentzia eta erabilgarritasuna, agiriak...- agertzera emotea da lehiaketaren helburua.

Lehiaketaren helburu nagusia erabiltzaileek artxiboez daukien ikuskerea agertzera emotea danez, partaideek euren sormena adierazo daikie argazki digital formatuan edo positibo digitalizatuetan. Ikutuak, fotokonposizioa, fotomuntaketak, collage digitalak, e.a onartzen dira, zuri eta baltzean zein koloretan, eta atzemateak edozein motatako kamara digitalagaz, telefono mobikorrak edo eskanetatutako dispositiboekin egin daitezke.

Antolatzailea

Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa / Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia eta

Icaro zentroa: historiaren ezagutzarako zentro aurreratua eta artxiboen interpretaziorako zentroa.

Datak eta saria

2011.eko uztailaren 8tik 2011.eko urriaren 27ra –ikus-entzunezko ondarearen nazioarteko eguna- partaideek izena emon daikie eta argazkiak entregatu.

Honako honeetan egongo da ikusgai bialdutako lanen **erakusketa birtuala**: www.aheb-beha.org AHEB-BEHAaren web orrialdean eta www.centroicaro.net Icaro zentroarenean, AHEB-BEHAk 35 urte beteten dituan egunetik, hau da, 2011.eko azaroaren 2tik aurrera. Kanpoan itziko dira funtsezko giza eskubideak urratzen dabezan edo jentearen sentikortasunari min emon deikeoen irudiak.

Partaide guztien artean **sari** hau zozketatuko da: gau bi eta gosariak Seminario Hotelean (Sercotel Hotelak) eta sarrera bi Bilboko Guggenheim museorako. Sarituek eurek aukeratuko dabez egunak. Lehiaketan izena emoterakoan jasoko dauan zenbakiaren azken zifra biak eta, izena emoteko epea amaituta, 2011.eko urriaren 28an ONCE erakundearen kupoiaren zozketan irabazle aterako dan zenbakiaren azken bi zifrak bardinak dituan partaidea izango da lehiaketaren irabazlea.

Baldintzak

Partaide bakotzak 3 obra aurkeztuko ditu gehienez.

AHEB-BEHA artxiboak eta Icaro zentroak digitalizatutako irudiak askatasunez ikusi eta erabili daikiez, "euren zabalkunderako bakarrik". Ez da AHEB-BEHAren eta Icaro zentroaren ardurea hirugarren batzuek zabaldutako materialaz egin daikien erabilera. AHEB-BEHAk eta Icaro zentroak irudien jatorria eta egiletasuna aitatu

dabez hareek paperez edo web bidez edo beste edozein euskarritan argitaratzen diranean eta argitaratzeko baldintzek hori ahalbideratzen dabenean.

Gura daben guztiek parte hartu daikie; ez dago mugarik adinari jagokonez. Animatu zaitetz eta animatu seme-alabak parte hartu daien!

Izena emoteko eta argazkiak bialtzeko

Izena emon behar da aldez aurretik edo lanak bialtzerakoan ondorengo gunehonetan: www.centroicaro.net/fotos_de_archivos edo ongorengo helbidera mezu elektronikoa bialduz: info@centroicaro.net eta datuhoneek emonez:

Izena eta abizenak*

Adina*

Herria*

P.K.*

Probintzia*

Herrialdea

Helbide elektronikoa*

Telefonoa

Nortasun agiria*

eta izena emoteko baldintzak onartuz.

Lanak AHEB-BEHAREN ikerketarako gelan (Larrauri 1A, 5. solairua, 48160, Derio, Bizkaia) be entregatu daitekez.

Partaide bakotxari posta elektronikoz jakinarazoko jako izena emotea eta/edo argazkien bialketa onartu jakon. Partaidetza-zenbakia jasoko dau eta horrek bere argazkiak identifikatzeko be balioko dau. Horregaitik, artxiboen izenak derrigorrez jasoko dau partaidetza-zenbaki hori eta zenbaki korrelatibo bat argazki bakotxarentzat (esate baterako, 001_1).

Partaide bakotxak argazkiak identifikatu beharko ditu, ondorengo datuhoneekin:

Partaide-zenbakia (zenbakirik ezean, izena eta abizenak eta helbide elektronikoa/telefonoa).

Izenburua (partaide bakotxak egindakoa).

Argazkia non hartu dan (udalerrria, artxiboa, e.a.).

Data (osoa edo gitxi gora-behera).

Dispositibo mota (kamara, mobikorra edo eskanerra).

Oharrak (nahi izan ezker).

Datuok argazkiei gehituko jakez bialtzen edo entregatzen diranean.

Datu pertsonalak ez dira beste ezertarako erabiliko lehiaketak irauten dauan bitartean eta, lehiaketa amaitu eta bidezko estadistikak egiteaz batera, partaideek DBLOan jasotako eskubideak gauzatu ahal izango dabez.

Informazioa eta aurkezpena

AHEB-BEHA eta Icaro zentroa

Larrauri, 1 A, 5. solairua

(48160) Derio, Bizkaia

www.centroicaro.net

www.centroicaro.net/archivo_digital

info@centroicaro.net

944062490